

HEZKIDETZAN MURGILDUZ

Berdintasun batzordea

2013-2014 ikasturtean zehar abiatu genuen lantalde berria da berdintasun batzordea. Gizartean erroturik dauden eta ikastolan halabeharrez islatzen diren ohitura sistema baten eraldaketa prozesu bat da abian jarri nahi duguna.

Guraso eta irakasleak batzen gaituen batzorde irekia da gurea. Kanean bolo-bolo dabiltzan hezkidetza, parekidetasuna, berdintasuna, genero-indarkeria eta antzeko terminoak dira gure ikastolako egunerokotasunean mahai gainean hausnarketarako jartzen ditugunak.

Eskola mistoko ereditik hezkidetza oinarritutako eskola eredura pausua ematea dugu erronka. Azken buruan, sexismoak eragiten duen edozein indarkeria mota eta egoerei aurrea hartzeko estrategia eta lanabes multzoa garatzea dugu helburu.

Lanean hasi gara beraz. Gure kezka eta beldurrak tarteko helburu bat ezarri diogu gure buruari: San Nikolas ikastolako berdintasun eta hezkidetza plan orokorra eratu eta martxan jartzea. Horretarako bide orri gisako dokumentu bat eratu dugu. Bertan taldearen helburuak eta nahiak islatzen dira batetik eta hurrengo ikasturteei begirako ekintza zehatzen plan bat islatzen da bestetik (web orrian duzue eskuragarri, bestelako dokumentuekin batera).

Batzordea 10 kidek osatzen dugu oraingoz (ziklo ezberdinetako 8 irakasle eta bi ama). Ez dugu hor gelditu nahi, izaera irekia duen batzordea da, eta beraz, gurekin lan egitera animatu nahi zaitugu. Ikastolako lantalde ezberdinetan eragingo duen plana da sortu nahi duguna. Izan ere, ikastolako komunitate osoa inplikatu nahi dugu, elkarlanean eta auzolanean, gure estiloan. Guztion lana baita, azken finean, ikastolan geure egin dugun leloari erantzutea: San Nikolas ikastolan hazi eta hezi berdintasunean.

berdintasuna@sanikolas.com



Comisión para la igualdad

La comisión para la igualdad se creó en el curso escolar 2013-2014. Queremos poner en marcha un proyecto de transformación para poner nuestro granito de arena en el proceso de cambio de las costumbres que están arraigadas en la sociedad y que se reflejan, por defecto, en la ikastola.

Es una comisión abierta que abarca a madres/padres y al profesorado. Ponemos sobre la mesa en el día a día de la ikastola términos como la coeducación, la igualdad, la paridad, la violencia de género entre otros con la sana intención de reflexionar y provocar un cambio en positivo.

Tenemos como objetivo seguir avanzando en la transformación de un modelo de escuela mixta a un modelo de escuela coeducativa. Por eso, queremos desarrollar estrategias y herramientas para poder prevenir y hacer frente a cualquier situación de violencia creada por el sexismo.

Hemos fijado nuestras preocupaciones y nuestros temores, por lo que nos hemos planteado el siguiente objetivo: Crear y poner en marcha un plan general para la coeducación e igualdad en la Ikastola San Nikolas. Para ello, hemos creado un documento a tipo de hoja de ruta donde, por una parte, se reflejan los objetivos y los deseos de la comisión y por otra, se detalla un plan concreto de actividades a realizar durante los próximos cursos (está accesible en la web, junto con otros documentos).

La comisión está formada por 10 miembros hasta el momento (8 docentes de diferentes ciclos y dos madres). No quisiéramos quedarnos ahí, siendo una comisión de carácter abierta o queremos animar a participar con nosotras/os. Queremos crear un plan que influya en las diferentes comisiones y grupos de trabajo, implicando a toda la comunidad que integramos la ikastola, colaborando y trabajando en equipo, a nuestro estilo. Es trabajo de todas/os, en definitiva, responder a nuestro lema: En la Ikastola San Nikolas educamos y crecemos en igualdad.

berdintasuna@sanikolas.com